

Laburpena euskaraz

Azken hamarkadetan gogotik idatzi da goi-mailako hezkuntza aldaketaren detonagailuez, irakasleek erronka berriei egokitzeko izan beharreko gaitasunez, eta rol berriak erdiesteko, irakasleriaren garapen (IG) programek izan beharreko enfasiez zein nolakotasunez. IG estrategiek irakasle norbanakoengan duten inpaktua aztergai izan denean, maiz, emaitzak pentsamendu eta praktika mailara murrizten dira. Dimentsio indibidualean inpaktu-ebidentziak egonkortu badira ere, agerikoa da erakunde mailako eremua ikertzeari eskaini zaion arreta falta, eta ondorioz, ebidentzia sendo eta homogeneorik ez da ekoiztu.

Ikerketa lan honek, beraz, IG estrategiek duten inpaktu orokorraren bidean egin nahi du bere ekarpen enpirikoa. Horrela, unibertsitateko IG kontzeptu global batetik abiatuta, ERAGIN garapen strategiaren inpaktua du aztergai, hala maila indibidualean (kontzepzio eta hurbilketan) nola antolakuntzan zein maila instituzionalean.

Azterketa hau burutzeko metodologia aktiboak (arazoetan, proiektuetan eta kasuetan oinarritutako ikaskuntza) garatzea helburu duen ERAGIN programaren lehendabiziko promozioa hartu da kasu gisa. Iraupen luzeko strategiaren (350 ordu) bidez eta ko-mentoriatan taldeen funtzionamenduan oinarrituz, ikerlan enpirikoak IG-ak irakasleriaren ikas-irakaskuntza kontzepzioetan eta hurbilketan izandako inpaktuaz ageriko ebidentziak ematen ditu, baina baita ikas-irakaskuntzaren inguruan ikertzeko (*scholarship of teaching and learning*) eta irakaskuntza eremuetan liderra izateko gaitasunaz ere. Honako alderdiok zera adierazi dute: erakunde mailan murgiltzen gaituztela eta curriculum hibridoaren pausokako gauzapearen alde lan egiten dutela.

Laburpena ingelesez

In recent decades it has written extensively about the triggers of educational change in higher education, the skills that should have the faculty to adapt to new challenges, and in this task, about the focus and characteristics of faculty development (FD) programs. When it comes to investigate the impact of FD strategies on individual teachers, the results are reduced to thinking and teaching levels. Whereas at the individual level evidences of the impact have been consolidated, it is evident the scant attention has been dedicated to investigate the organizational level, and therefore there has been no consistent and homogeneous evidence.

Therefore, this research aims to make an empirical contribution in the field of FD strategies impact. So, this research work is based on a comprehensive concept of faculty development and studies the impact of the ERAGIN development strategy. For

this, two areas of impact are analyzed the teacher individual level and the organizational and institutional levels.

To realize this analysis we take the first promotion of ERAGIN program to develop active teaching methodologies (Case Method, Problem-Based Learning and Project-Based Learning). Through a long-term strategy (350 hours) and working in co-mentoring groups, this research provides empirical evidence of the impact not only on teaching skills and conceptions about teaching and learning (T-L) but also on the ability for T-L research (scholarship of teaching and learning) as well as on educational leadership. Those aspects point out organizational change and support the progressive realization of the hybrid curriculum.

AITZINSOLASA

Unibertsitateko ikas-irakaskuntza berrikuntzaren inguruko gogoeta biziko unean hautatu nuen doktorego tesia egiteko gaia. 2009-2010 ikasturte hartan eszenatoki aparta konfiguratu zen. Orduan aktibatu zen, intentsitate handiagoz zein txikiagoz, instituzioaren geruza ezberdinetan hedatuko zen berrikuntza makineria. Ipar argi nagusia: ikasleak euren ikaskuntzaren jabe izatea. Mami horrekin hornitu zen IKD – ikaskuntza kooperatibo eta dinamiko- hezkuntza eredu, eta irakasleei zuzendutako ERAGIN programa izan zen, metodologia aktiboen bidez iparrerantz gerturatzeko indar zentrifugoetako bat. Planteamendua sendoa zen: irakasleei baliabide metodologikoak emanaz, ikasleak erdigunean kokatu eta diziplinaren ulermen sakonagoa gara zezaten posible egitea. Hau guztia testuinguru jakin batean kokatu behar da, alegia, ikas-irakaskuntzan berrikuntzak gauzatzearen alde mesfidati agertzen zen kultura instituzionala, batetik, eta euren jarduna iraultzeko motibazio handia eta jakin min berezia aitortzen zuen irakasle eta formatzaile talde bat, bestetik. Osagai hauekin, berrikuntza metodologikoa oinarri zuen esperientzia erreal baten eskutik ikerketa prozesua abiatu genuen.

Ingurumari emerjente hartan erabaki nuen, beraz, iraupen luzeko IG estrategien inpaktua ikergaitzat hartzea. Helburua garbia nuen orduan, eta egun ere gaurkotasunik ez du galdu: irakasleriaren garapen estrategiek norbanakoan zein antolakuntza maila konplexuagoan duten eraginkortasunaren inguruan ebidentziak ekoiztea. Eta hori aztertzeko ERAGIN programa kasu gisa hartu nuen.

Teoria mailan antzeman nituen puntu beroak gaur egun ere ibilbide luzea dute ikertzeke: i. IG programek non eduki behar duten inpaktua, hau da, garapen

estrategiek zer aldatu nahi duten; horretarako, ii. zeintzuk diren IGean erabiltzen diren estrategia ezberdinen eragina; eta iii. nola ikertu behar den eragin hura, inpaktuaren konplexutasunari heldu nahi zaionean.

Gako teoriko hauetan aurrera egiteko ekarpen interesgarriak aurkitu nituen, zenbaitetan argigarriak, eta bestetan sendotasunik gabekoak. Ere honetan ezinbesteko erreferentzia da Steinert-en eta bere kideen (2006) errebisio teorikoa eta nik ere hala izan nuen. Erabakigarria izan da IG estrategien inpaktua ikertu duten lanek aztergai izan dituzten kategoriak identifikatzeko eta inpaktua bere osotasunean ikertzeko hurbilpen metodologikoaren gakoak zehazteko. Halere, batzuek zein besteek ez zuten guztiz nire ikergaira ekartzekoa zen eta ERAGIN IG strategiaren eraginkortasuna neurtzeko eredurik aurkezten. Hartara, inpaktua ikertzeko nire ereduaren bila jo nuen eta mekanismo metodologiko propioa diseinatu nuen. Egokitze prozesu horretan, lagungarri oso izan nuen Kirkpatrick-en (1994) inpaktua ebaluatzeko kategorien proposamena. ERAGIN programa kasu gisa hartuta, zeintzuk ebidentziak sortu inpaktu-maila ezberdinetan? (hori bai, arreta berezia antolakuntza zein instituzio mailakoetan jarriaz), eta nola aztertu estrategien irismena inpaktu-maila ezberdinetan?

Emaizta-mailen ikerketan aurrera eginez, Stes-ek eta bere kideek (2010a, 2010b, 2013), analisi-elementu interesgarri bat gaineratu zuten, hain zuzen ere, IG estregien iraupenak, izaerak edota helburuzko taldeak badutela eragina gerora lortuko diren emaitzetan. Gure ikerlanaren kasuan, nagusiki, iraupen luzeko estrategia zena eta irakasleak taldeka lan egitera bideratzen zituen mentoria kolaboratiboa konbinatzen zituen programa. Hortaz, anitza zen eta aldibereko norabideak zituen fenomenoarekin lan egitean, batez ere, inpaktua neurtzerako orduan ikusten nituen mugak: nola ikertu inpaktua, nola hurbildu bere konplexutasunera? Korapilo hau, izatez elastikoagoak ziren ebaluazio metodoekin askatu nuen, funtsean, metodo kualitatiboak erabiliaz eta ERAGIN programako partaideen testigantzekin zuzenean konektatuz.

Ikerketa galdera hauen azterketak eman zidan orduan nire tesia osatzeko aukera. Gaur egun, aurrerantzean aritzeko aparatu teoriko sendoa eraiki izanaren sentsazioa dut eta ikerketa galderak asko aldatu ez badira ere, erantzunak sendoagoak ematea eta galdera berriei atea irekitzea espero dut.